

» KONTZERTUA

Emozioak



Montse Auzmendi

Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren abonuzikloaren bigarren kontzertua ez da saio arrunta izan. Kalitate eta sentimendu asko pilatu ziren eszenatokian, topaketa ahaztezina bihurtzeko. Alde batetik, egitarau potentea, gero komentatuko dudana, bi obra zoragarri osatua; eta, beste alde batetik, arrazazko bakarlaria, musika eta bere soinu-tresna modu ikaragarri sentitzen dituen eta sentimendu hori jendearengana helarazten duena. Joaquín Achúcarro piano-jotzaile bilbotarrak azaroaren 1ean 85 urte bete zituen, taula gainean, artista handiek bezala, eta sasoiaren.

Maurice Ravelek *Esku ezkerreantzeko piano eta orkestrarako kontzertua*, *Re maiorrean* Paul Wittgenstein pianista austriarrari dedikatu zion, musikari honek (Ludwig Wittgenstein filosofoaren anaia) eskuineko besoa galdu baitzuen I. Mundu Gerran. Obra ederra da, mugimendu bakarrekoa, non ehundura orkestralak eta ñabarduren aniztasuna oso garrantzitsuak diren. Nahiz eta zailtasunez beterik egon, Achúcarrok lezio bat eman zuen. Jakin zuen egokitzen gaur egungo bere teknika bertsio dotorea egiteko, ez hain perfektua, baina bai benetan iradokitzailea. Bis bezala, Chopinen *Nokturno* bat oparitu zuen, oso intimista, delikatu eta sentitua.

Saioaren bigarren zatian Euskadiko Orkestrak eta Robert Treviño zuzendari titular berriak lan handi bat eskaini zuten: Dmitri Xostakovitxen *11. Sinfonia, sol minorrean, op. 103; 1905. urtea*. Sinfonia erraldoi horrek 1905. urteko Errusiako igande odoltsua oroitzen

Maurice Ravel eta Dmitri Xostakovitxen lanak

EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA

Zuzendaria: Robert Treviño.
Bakarlaria: Joaquín Achúcarro.
Bilboko Euskalduna Jauregia.
Azaroaren 4a.

du, estilo programatikoa azalduz. Lanaren lau zatiak (*Neguko Jauregiko plaza*, *Urtarrilaren 9a*, *Betiereko oroimena* eta *Tocsin* –alarma seinalea–), ondo marraztuta agertu ziren, pasioz. Aitzakia ona izan zen Xostakovitx hau Treviño zuzendariaren nortasuna ikusteko. Oso gaztea da, 34 urte besterik ez ditu, baina zuzendari kanporakoa da, dena ematen duena interpretazioetan, buru-belarri sartzen dena partituran. Konektatu egin zuen entzuleekin eta agian konexio hau da Euskadiko Orkestrak une honetan behar duena. Zorte on! ■

Robert Treviño zuzendari estatubatuarra (Fort Worth, Texas, AEB).

